

ASIGNATURA/IRAKASGAIA

Hezkuntza bereziaren oinarri psikologikoak

TITULACIÓN/TITULAZIOA: ...Haur hezkuntza...

Nº CRÉDITOS/KREDITU KOPURUA: ...4,5 (teóricos + prácticos)

DEPARTAMENTO/SAILA: ...Bilakaeraren eta hezkuntzaren
psikologia

OBJETIVOS/HELBURUAK:

ZENTZUA ETA ESANGURA

Lanerako motibaziorik garrantzizkoena, eskoletan eta bizitzan, lanak berak ematen duen plazerra da, beraren emaitzek damaiguten atsegina eta emaitza horiek gizarterako duten balioaren ziurtasuna. Ene ustez, irakaskuntzaren betebeharririk garrantzizkoena, gaztearengan indar psikologiko horiek iratzartzea eta indartzea da.(...) Lehenik eta behin, irakasleak berak era horretako eskoletan formatu behar dira. Bigarrenik askatasun zabala izan behar du irakasleak, bere irakasmateriala eta metodo pedagogikoak aukeratzeko orduan. Zeren eta irakaslearen lanaren kasuan ere, lanaren antolakuntzaren plazerra itorik gera bait daiteke kanpo-indar eta presioen kausaz

(Albert Einstein)*

Horregatik lankidetzaz: zuek, irakaslegaiak, beste era bateko metodologia barnetik ezagutu dezazuen, etorkizunean erabili dezakezuen metodologia baita. Ikasteaz gain, irakasleak zein ikasleak gustura egotea ahalbideratzen duelako, ikaskuntza atsegina goa bihurtzen duelako, ikasteko zailtasunei aurre egiteko oso baliagarria delako...

Horregatik, mintzairaren beste praktika batzuk antolatzea, hitzez gozatuz ikas dezagun, honela, haurrei ere hitzez gozatzen irakatsiko diezuelakoan alfabetatze prozesua errotik erraztuz.

Horregatik, ikasteko zailtasunak dituen ikasleen ezaugarriak eta egoerak ulertu beharra: zailtasunen iturriak ezagutuz soilik lagundu diezaikegu oztupoak gainditzen eta ikastearen plazerra berreskuratzen.

Horregatik lan proposamen hau: iazko esperientzia hobetzeko eta ikaskuntza esanguratsua bultzatzeko asmotan prestatu dugulako. Zuen interesetatik abiatuko zarete horrek bakarrik pizten baititu ikasteko benetako gogoia eta gozamina.

* Jose Ramon Etxebarria (1990): Albert Einstein. Gaiak argitaletxea. Donostia. Orr 54-55.

Eta horregatik ebaluazioaren irizpideak eztabaidatu beharra ere: adostasun batetik abiatu aurreko helburu guztiak errazago beteko ditugu eta.

CONTENIDOS/EDUKIAK:

1. Atala: Eskola inklusiboak, integrazioa eta hezkuntza premia bereziak: Oinarrizko markoa.

2. Atala: Ikasteko zailtasunak

2.1. Hezkuntza premia bereziak.

- 2.1.1. Ahozko komunikazioaren zailtasunak.
- 2.1.2. Idatzizko komunikazioaren zailtasunak.
- 2.1.3. Matematikaren ikaskuntza-zailtasunak.
- 2.1.4. Gaitasun handiak dituzten ikasleen zailtasunak.
- 2.1.5. Portaeraren arazo eta zailtasunak.
- 2.1.6. Arazo afektiboak eta portaera agresiboa ikasgelan.
- 2.1.7. Kultura aniztasuna. Ikasteko zailtasunik?
- 2.1.8. Ikasteko motibazio gutxi duten ikasleak.

2.2. Garapenaren nahasteak eta hezkuntza premia bereziak.

- 2.2.1. Mugimen-defizita edo urritasun-motorrak
- 2.2.2. Entzumenezko urritasunak
- 2.2.3. Ikusmen urritasunak
- 2.2.4. Adimen-urritasuna.
- 2.2.5. Autismoa.
- 2.2.6. Ingurune kaltetuan edo egiturarik gabeko ingurunean bizi diren ikasleak.

METODOLOGIA:

A) Eskoletan parte hartuz: Aukera honek, eskolara joatea eta bertan parte hartzea eskatzen du:

IKASGELAKO LAN METODOLOGIA: LANKIDETZAKO IKASKUNTZA

TALDE LANA: Esan bezala lankidetzan sakonduko dugu, oraingo honetan "Ikerkuntza taldea" teknika erabiliz.

Taldeak egin: Metodologia honetan taldeak egiteko erabili daitezkeen irizpideak ikusiko ditugu (haurrekin zuen eskoletan taldeak antolatzeke irizpide ezberdinak ezagutu ditzazuen eta era askotako taldeetan lan egiten ikas dezazuen). Erabakiko duzue zein irizpide, zeren arabera aukeratu taldea (gai interesen arabera, laguntasuna kontuan hartuz...).

Gaia aukeratu: egitarauaren gai bat aukeratu duzue, zerbaitengatik benetan *interesatzen* zaizuen gai bat. Behar izanez gero irakaslearekin hitz egin dezakezue gai bakoitzak zer dakarren hobeto ezagutu nahi baduzue.

Elkarbizitza antolatu: espero duzuen (igurikapenak), taldeko gutxieneko arauak, planifikazioa, eginbeharren banaketa, emango diren pausuak... Batzuetan informazioa dagoen tokira jo beharko duzue edo tutorearengana baina beste batzuetan hitz egin eta pentsatu beharko duzue elkarrekin: oso inportantea da lan honetan elkarriketarako giro aproposa bilatzea.

Gaian murgildu (ikerketa): iturri ezberdinak erabiliz aukeraturiko gaiari buruzko informazioa eta materiala bilduko dituzue, beti ere zuen interesak gidaturik. Egitarau honekin batera datorren bibliografia duzue honetarako eta baita beste gida batzuekin batera emango dizuegun beste iturrien zerrenda bat ere bai.

"**Ekarpenak**" izeneko atala izango dugu gure eskoletan. Hamabost minutuko ahozko ekitalditxo bat antolatuko duzue. Helburua da besteei luzatzea zuentzat interesgarriena, hunkigarriena, eztabaidagarriena, e.a. izan dena (materiala, hitzak, iturriak, ideiak, esperientziak...). Eskainiko duzuen guztia istorio bat osatuz antolatu behar duzue. Kulturgileak zarete, ez ahaztu, beraz gure kulturaren kutxatik edozein tresna erabili ahal izango duzue istorioa kontatzeko balio badu. Hemen ere zuen ikasleekin landu ditzakezuen mintzairaren erabilerak jorratuko dituzue. Ekarpena bukatzean denbora emango dugu talde txikietan eta handian eskainikoaz berba egiteko (sentimenduaz, mezuaz, gaiari buruz,)

"Ondorioak": taldeak lan hau eginez atera dituen ondorioak jasoko ditu testu labur batean, erabilitako iturri gida barne. Honen xedea hauxe da: oinarritzko ezagupenak barneratzea eta beste ikaskideek eskuratzea. Era honetan guztiok landu duzuen gaiaz gain besteek landu dutenaz jabetuko zarete.

Elkarbizitzaz gogoeta egin: taldeak, izan duen esperientziaren historia idatziko du. Zertaz? Taldeak eman dituen pausuz, sentitu duenaz, metodologiak, irakasleaz, taldeko funtzionamenduaz, igurikapenaren betekizunaz, giroaz, hobetzeko iradokizunaz... eta esanguratsua izan denaz.

BANAKAKO LANA: iaz egin genuen bezala ikasle bakoitzak gertatzen denaren gogoeta koaderno berezi batean idatziko du.

Asterokoa bete: egunero oharrak hartuko dituzue baina astean behin hamabost minutu emango dugu asterokoa idazteko. Zertaz? Esperientziak, sentimenduak, talde bizitzaz, ikaskuntzaz, ezagueraz, ekarpenaz, ondorioetatik.... Nola? Deskribapenak, balorazioak, argudioak eta iradokizunak eginez.

CRITERIOS DE EVALUACIÓN/EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK:

1. Eskoletako dinamikan parte hartzea ebaluatuko da: "ekarpena", "ondorioak" eta elkarbizitzari buruzko gogoeta. Irakasgaiaren %40a. Gidetan agertzen diren irizpideak kontuan hartuko dira.
2. Banaka eguneroko ikaskuntzari buruzko hausnarketak, ebaluazioa eta iradokizunak: "asterokoa". Irakasgaiaren %30a.
3. Ebaluazio-froga (idatzizkoa). Kurtsoaren bukaeran ikasleek egingo dituzten "ondorioetatik" ebaluazio-froga diseinatuko da, kurtsoan zehar landutako ikasgaien ezagupen maila baloratzeko. Ebaluazio-frogak galdera motzak izango ditu: %30a.

B) Eskoletan parte hartu gabe. Edozergatik eskolara behar den maiztasunez etortzerik ez dutenek ondoko aukera hau izango dute:

Egitarau honetan agertzen den bibliografia erabiliko duzu. Testu liburu bat aukeratuko duzu eta baita beste liburu edota artikulua osagarriak ere, zure gustuko gairen batean sakondu nahi baduzu. Guk Marchesi, Coll eta Palacios-en testu liburua gomendatzen dugu. Beste bat aukeratzekotan, bibliografian ez balego, irakasleari esan beharko diozu. Bibliografia osagarria erabili nahi baduzu, beraz aukeratzeko orduan irakaslearen laguntza izango duzu tutoretza orduetan.

Azterketaren egunean lan saio bat izango dugu. Testuak eta zuk landutako guztia (laburpenak, eskemak, fitxak, gogoetak...) eramango dituzu lan saiora. Giro lasaian eta presarik gabe, hiru idazlan egin beharko dituzu irakasleak proposatutako seien artean aukeratuak. Hauxe da baloratzeko dena: testuen ideiak ulertzea, gaiarekin zerikusia izatea, gaiarekin erlazionaturiko ideien kopurua, ideien arteko loturak eta idazlanaren barne koherentzia.

BIBLIOGRAFIA:

Bibliografia orokorra:

1992. Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa eta hezkuntza premia bereziak. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

1. Goi mailako ikas gaitasunak dituzten ikasleen hezkuntza.
2. Hezkuntza-premia bereziak Haur-Hezkuntzako bigarren zikloan.
3. Lehen Hezkuntzan aniztasunaren trataerari heltzeko orientabideak.
4. *** Hezkuntza-premia bereziak lehen mailako hezkuntzan.

5. Hezkuntza-premia bereziak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
6. Autismoa haurtzaroan. Komunikazio arazoak
7. Aho hizkuntzaren sustapena Haur Hezkuntzan.
8. Down sindromea: hezkuntza-premiak eta lengoaiaren garapena.
9. Curriculum-proiektua hezkuntza bereziko ikastetxeetan.
10. Hezkuntza premia bereziari araudia Euskal Autonomi Erkidegoan.

- Bronckart, J. P.; Idiazabal, I. (1990). Hizkuntzaren psikopedagogia : testu motak, funtzionamendua eta didaktika. AA.VV. (1994): Deficiencias visuales. Aspectos psicoevolutivos y educativos. Málaga: Algibe
- Aguado, A. (1995). Historia de las deficiencias. Madrid: Escuela Libre Editorial.
- Aimard, D.; Abadia, C (1992): Intervención precoz en los trastornos del lenguaje del niño. Barcelona: Masson.
- Ainscow, M. (1995). Necesidades especiales en el aula. Guía para la formación del profesorado. Madrid: UNESCO y Narcea.
- Alfaro, I. J.; Nari, R. (1992). Dificultades de aprendizaje. Valencia: Colección MIDE.
- Bardisa, L. (1992): Cómo enseñar a los niños ciegos a dibujar. Madrid: ONCE
- Basil, C. (1993): Técnicas alternativas y aumentativas de comunicación para alumnos con discapacidad motora. Infancia y aprendizaje. Monográfico, 64.
- Bassedas y col. (1991). Intervención educativa y diagnóstico psicopedagógico. Barcelona: Paidós.
- Bautista, R. (1993). Necesidades educativas especiales. Manual teórico-práctico. Málaga: Algibe
- Belinchon, M.; Riviere, A.; Igoa, J.M. (1992): Psicología del lenguaje: investigación y teoría. Madrid: Trotta.
- Benedet, M.J. (1991): Procesos cognitivos en la deficiencia mental. Madrid: Pirámide.
- Bermejo, V. (1990). El niño y la aritmética. Barcelona: Paidós.
- Calzoni, A. (1993): Orientación profesional del deficiente mental. Madrid: Inerser.
- Canal, R. (1993): El autismo 50 años después de Kanner. Salamanca: Amarú
- Carbonero, M. A. (1993). Dificultades de aprendizaje. Tendencias y orientaciones actuales en la escuela. Valladolid: ICE Universidad de Valladolid.
- Cerdá, Marín, M.C. (1990). Niños con necesidades educativas especiales: bases conceptuales, diagnóstico y tratamiento. Valencia: Promolibro
- Cobos, P. (1995): El desarrollo psicomotor y sus alteraciones. Madrid: Pirámide.
- Coll, C. (1987). Psicología y curriculum. Barcelona: Laia.
- Coll, C. y col. (1993) El constructivismo en el aula. Barcelona: Graó.
- Coll, C.; Pozo, J.I.; Sarabia, B. (1992). Los contenidos de la reforma. Madrid: Santillana.
- Cuetos, F. (1990). Psicología de la lectura. Diagnóstico y tratamiento. Madrid: Escuela Española.
- Fernández Viader, M.P. (1996): La comunicación de los niños sordos. Interacción comunicativa padre-hijo. Barcelona: ONCE-CNSE.
- Fernández, F.; Llopis, A.M.; Pablo, C. (1991). Matemáticas básicas: dificultades de aprendizaje y recuperación. Madrid: Santillana.
- Ferreiro, E.; Teberosky, A. (1991). Los sistemas de escritura en el desarrollo del niño. México: Siglo XXI.
- Freeman, J. (1988): Los niños superdotados. Aspectos psicológicos y pedagógicos. Madrid: Santillana.
- Freixa, M. (1993): Familia y deficiencia mental. Salamanca: Amarú.
- Gallardo, M.V.; Salvador, M.V. (1994): Discapacidad motórica. Aspectos psicoevolutivos y educativos. Málaga: Aljibe.
- Giné, C. y col. (1991). Educación especial, nuevas perspectivas. Barcelona: Laia.
- Gisberts, J y col. (1990). Educación especial. Madrid: Cincel-Kapelusz
- González, G. (1995). Necesidades Educativas especiales. Intervención psicoeducativa. Madrid. CSC
- Gough, P.B.; Ehri, L.C.; Treimasn, R. (1992). Reading acquisition. Hillsdale: Lawrence Erlbaum Associates.
- Hanko, G. (1993). Las necesidades educativas especiales en las aulas ordinarias. Profesores de apoyo. Barcelona: Paidós.
- Harts, A. (1994). La educación especial en el marco de la LOGSE. Madrid: Cúpula.
- Heward, W.I.; Orlanski, M.D. (1993). Programas de educación especial. Barcelona: CEAC.
- Juarez, A.; Monfort, M. (1992). Estimulación del lenguaje oral. Un modelo interactivo para niños con dificultades. Madrid: Santulona.
- Jurado, S. (1994): Integración socio-laboral y educación especial. Barcelona: PPU.
- López Melero, M; Guerrero, J.F. (1993): Lecturas sobre integración escolar y social. Barcelona: Paidós.
- Maher, C.; Zins, J. (1989): La intervención psicopedagógica en los centros educativos. Madrid: Narcea
- Marchesi, A.; Coll C.; Palacios, J. (2004) Desarrollo psicológico y educación, 3. Trastornos del desarrollo y necesidades educativas especiales. Madrid Alianza Editorial.
- Martín, E.; Martín, T. (1996). La atención a la diversidad en la Educación secundaria. Barcelona: ICE/HORSORI.

- Mayor, J. (1991). Manual de Educación Especial. Madrid. Anaya
- Miranda, A. (1994). Introducción a las dificultades de aprendizaje. Valencia: Promolibro.
- Molina, S. (1994). Bases psicopedagógicas de la Educación Especial. Alcoy: Marfil.
- Molina, S.; Arraiz, A (1993): Procesos y estrategias cognitivas en niños deficientes mentales. Madrid: Pirámide.
- Molina, SS.; Seva, A. (1994): Deficiencia mental. Barcelona: Expaxs.
- Monereo, C.; Solé (1992). El asesoramiento psicopedagógico: una perspectiva profesional y constructivista. Madrid: Alianza Psicología.
- Morgon, A. (1991): Educación precoz del niño sordo. Manual para padres y educadores. Barcelona: Masson
- Ochaita, E. y col. (1988): Alumnos con necesidades educativas especiales. Reflexiones sobre educación y desarrollo. Madrid: MEC-Popular
- ONU (1972): Declaración de los derechos generales y especiales de los retrasados mentales. Nueva York: ONU.
- Peiró, S.; Ramos, C. (1985): Programación de la psicomotricidad en la Educación Especial. Madrid: CEPE.
- Peña, J. (1994). Manual de logopedia. Barcelona: Masson.
- Pérez, L. (1994): Diez palabras claves en superdotación. Estella: Verbo Divino.
- Resnick, L.B.(1991). La enseñanza de las matemáticas y sus fundamentos psicológicos. Madrid: Paidós.
- Rigo, E.; Talens, D. (1987). Teoría y práctica de la Educación Especial. Palma de Mallorca: ICE-UIB.
- Rivas, R. M.; Fernández, P. (1994): dislexia, disortografía y disgrafía. Madrid: Pirámide.
- Riviere, A (1988) Evaluación y alteraciones de las funciones psicológicas en autismo infantil. Madrid: CIDE-MEC.
- Rosa, A.; Ochaita, E. (1993): Psicología de la ceguera. Madrid: Alianza.
- Sánchez, A.; Torres, J.A. (1996). Educación especial. Madrid: Pirámide.
- Sánchez, E. (1993). Los textos expositivos. Estrategias para mejorar su comprensión. Madrid: Santillana.
- Stenhouse, L. (1984) Investigación y desarrollo del curriculum. Madrid: Morata.
- Teberosky, A. (1992). Aprendiendo a escribir. Barcelona: ICE-Horsori.
- Torres, S. (1995): Deficiencia auditiva. Aspectos psicoevolutivos y educativos. Málaga: Algibe.
- Valett, R.E. (1990): Niños hiperactivos. Guía para la familia y la escuela. Madrid: Cincel.
- Verdugo, M.A. (1995). Personas con discapacidad: perspectivas psicopedagógicas y rehabilitadoras. Madrid: Siglo XXI
- Verdugo, M.A. (1996): Programas conductuales alternativos. Madrid: MEPSA.
- Wang, M.C. (1995). Atención a la diversidad del alumno. Madrid: Narcea.

Bibliografía osagarria:

- Bruner, J. (1988): *Realidad mental y mundos posibles*, Barcelona, Gedisa.
- Bruner, J. (1997): *La educación, puerta de la cultura*, Madrid, Visor
- Cazden, C.B. (1991): *El discurso en el aula*, Barcelona, Paidós & MEC.
- Coll; Martín; Mauri; Miras; Onrubia; Solé eta Zabala (1993): *El constructivismo en el aula*, Graó, Barcelona.
- Coll, C eta Edwards, D (bil) (1996): *Enseñanza, aprendizaje y discurso en el aula*, Madrid, Fundación Infancia y Aprendizaje.
- Edwards, D eta Mercer, N (1988): *El conocimiento compartido*, Barcelona, Paidós & MEC.
- Egan, K. (1991): *La comprensión de la realidad en la educación infantil y primaria*, Madrid, Morata & MEC.
- Egan, K (1994): *Fantasía e imaginación: su poder en la enseñanza*, Madrid, Morata & MEC.
- Fabra, M.L. (1994): *Técnicas de grupo para la cooperación*. Ediciones CEAC. Barcelona.
- Gordo López, A. J. eta Linaza, J.L. (bil..) (1996): *Psicologías, discursos y poder*, Madrid, Visor.
- Huertas, J.A. eta Montero I (2001): *La interacción en el aula. Aprender con los demás*. Buenos Aires: Aique.
- Johnson D. Eta Johnson R.(1999). *Aprender juntos y solos. Aprendizaje cooperativos, competitivo e individualista*. Buenos Aires: Aique.
- Lobato, C. (1998): *El trabajo en grupo. Aprendizaje cooperativo en secundaria*. EHUko Argitalpen zerbitzua. Bilbo.
- Luque eta Vila, I: *Desarrollo del lenguaje*, 173-190 orr., J. Palacios; A. Marchéis; C. Col (Bil.): *Desarrollo psicológico y educación I*, liburuan. Madrid, Alianza, 173-190 orr.
- Martín Gaité, C. (2000): *La búsqueda de interlocutor*, Barcelona, Anagrama. Lehenengo argit. 1973.
- Martin Gaité, C. (1988): *El cuento de nunca acabar*, Barcelona, Anagrama. Lehenengo argit. 1983.
- Mercer, N (1997): *La construcción guiada del conocimiento*, Barcelona, Paidós.
- Newman, D.; Griffin, P.; Cole, M. (1991). *La zona de construcción del conocimiento*. Madrid: Morata.
- Rogoff, B. (1993): *Aprendices del pensamiento. El desarrollo cognitivo en el contexto social*, Paidós, Barcelona, 97-104. orr.
- Schneuwly, B. (1997): *La enseñanza del lenguaje oral y la lectoescritura en la perspectiva socio-cultural*, Amelia Alvarez (bil): *Hacia un currículum cultural. La vigencia de Vygotski en la educación*, liburuan, Madrid, Fundación de Infancia y Aprendizaje, 91-101 orr.
- Siguán, M. (coord.) (1987): *Actualidad de Lev S. Vigotski*, Barcelona, Anthropos
- Slavin, R. (1999). *Aprendizaje cooperativo*. Buenos Aires: Aique.
- Vigotsky, L.S. (1934). *Pensamiento y lenguaje*. Buenos Aires: La Pléyade.
- Vigotski, L. S. (1979): *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*, Madrid, Grijalbo.
- Vila, I.(1990): *Adquisición del lenguaje*, J. Palacios; A. Marchesi; C. Col (Bil.): *Desarrollo psicológico y educación I*, liburuan. Madrid, Alianza.
- Wells, G. (1988): *Aprender a leer y escribir*, Barcelona, Laia.
- Wertsch, J. (1988): *Vygotsky y la formación social de la mente*, Barcelona, Paidós.
- Wertsch, J. (1991): *Voces de la mente*, Madrid, Visor.